

## 8. ERANSKINA

### Bideoak

<https://www.youtube.com/watch?v=jeX45OchAnA>

Link hau gela osoarentzat jarriko da, eta guztion artean komentatuko dugu.

6 talde eratuko ditut, eta talde bakoitzari web orrialde bat emango diot. Bertan, egoera ezberdinak agertuko dira, eta ikasleek egoera horiek ikusi eta denoi ikusitakoa kontatuko digute.

Galdera batzuk egingo dizkiet, baina hasi aurretik, bideoan ikusiko duten bezala, hankarik ez izateak ez du esan nahi balio ez duenik edota gutxiago denik.

Ondoren, lehen esan bezala, galdera hauei erantzuna emango zaie:

- Zer gertatzen da bideoan?
- Nola konpontzen dute egoera hori?
- Zer egingo nuke nik egoera horretan?
- Zer iruditu zaizu harrigarriena? Hitzak, esaldiak, irudiak, egoerak...

Egoerak:

1. <https://www.youtube.com/watch?v=rzVGlwocSCc> 3:05 (laguntasuna)
2. <https://www.youtube.com/watch?v=zQV5BURFYSo> 2:04(bakoitzaren berezitasuna)
3. <https://www.youtube.com/watch?v=pPydDOQmSql> 3:17 (3txerrikumeak)

Trailer:

1. <https://www.youtube.com/watch?v=phCEwSmHpOE> 2:30 (Billy Elliot)
2. <https://www.youtube.com/watch?v=wO2rY6iJfAA> 2:09 (El sueño de Ivan)
3. <https://www.youtube.com/watch?v=iNa0VTDQsX0> 1:43 (Matilda)

Galdera hauekin amaitu ondoren, haien kasuetan nor esfortzatzen den galdetuko diet, edota ia edonor ezagutzen duten. Momentu honetarako, ezagutu izango dute esfortzuaren bitartez lorpen bat jaso duen pertsonaren bat. Beraz, egoera ezberdinetan esfortzatzen den jendea izendatzeari ekingo diogu.

Ez dira famatuak izan behar, eta horretarako, gurasoen adibideak azalduko ditut (krisiaren ondorioz, familia aurrera ateratzeko esfortzua egiten dutenak), nire kasuan marrazkiak egiterako orduan, esfortzua eta denboraren bidez, marrazki dezenteak egiten ikasi dudala...